

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

**Ebazpena: R11/ 2017**

**Espedientea: 18/2012 eta 27/2014, metatuak**

Bilbo hirian, 2017ko ekainaren 21ean,

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburu eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekide dituenak, honako erabaki hau hartu du:

**ERABAKIA**

18/2012 eta 27/2014 gatazka metatuei buruz. Gatazka horiek honako hauek proposatu zituzten, hurrenez hurren: alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurka, zeinaren helburua 1 ERAKUNDEAK (IFZ: -----) egindako eragiketa kopuruaren ehunekoia –2006tik 2010era bitarteko ekitaldietako balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokiona– zuzen erabakitzea baita; eta, bestetik, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Bizkaiko Foru Aldundiaren aurka, zeinaren helburua 2011ko ekitaldiko balio erantsiaren gaineko zergaren ordainarazpenerako eskumena ezartzea baita 1 ERAKUNDEAK (IFZ: -----) Bizkaian egindako eragiketei dagokien zatian. Gatazka horiek batzorde honetan izapidetu dira, eta txostengilea Isaac Merino Jara jauna izan da.

**I. AURREKARIAK**

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

1.- Bizkaiko Foru Aldundiak, 2012ko maiatzaren 21eko idazki baten bidez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurkako gatazka bat aurkeztu zuen. Idazki hori hurrengo egunean erregistratu zen batzorde honetan, eta 2014ko abenduaren 1ean izapidetu zen eta 18/2012 zenbakia esleitu zitzaion. 2014ko ekainaren 27an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Bizkaiko Foru Aldundiaren aurkako gatazka jarri zuen, eta egun horretan bertan erregistratu zen batzorde honetan. Gatazka hori 2014ko abenduaren 1ean izapidetu zen eta 27/2014 zenbakia esleitu zitzaion. 2015eko maiatzaren 6an, Arbitraje Batzordeak bi gatazkek metatzea erabaki zuen.

2.- 18/2012 gatazka planteatzen duen idazkiaren aurrekariak, labur-labur, honako hauek dira:

- Bizkaiko Foru Aldundiak, 2012ko otsailaren 8an, adierazi du 1 ERAKUNDEAK idazki bat aurkeztu zuela Bizkaiko Foru Aldundian. Idazki horretan adierazi zuen 2011ko azaroaren 29an bi adostasun-akta sinatu zituela Zerga Administrazioko Estatu Agentzian 2006tik 2010era bitarteko ekitaldietako BEZari dagokionez, eta, erakundearen arabera, akta horiek irmotasuna hartu zutenez, estatuko Ikuskatzaileak egiaztatzeko eta ikertzeko egindako jardunei amaiera eman zitzaien akta haien bitartez. Jardun horiei 2011ko otsailaren 22an eman zitzaien hasiera, eta, irismen partziala izateaz gain, honako helburu hau zuten: "Erkidegoko eta Aldundiko lurraldeetan egindako eragiketa kopuruaren proportzioa egiaztatzea aitortutako guztizko eragiketekin alderatuta". Era berean, adierazi du egiaztapenaren xede diren ekitaldietan Nafarroako Foru Lurraldean eta Gipuzkoako Lurraldean aitortu zituela balio erantsiaren gaineko zergari lotutako eragiketa batzuk; zehazki, ERAKUNDE JAULKITZAILEAREN erosketa-txartel komertzialak erabili ziren eragiketak eta erregaia gordailu fiskaletatik ateratzeko diren eragiketak. Halaber, adierazi du 2011ko ekitaldian eragiketa horiek benetan egin ziren lurraldearen arabera

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

aitortu zuela; hortaz, 2011ko abenduaren 31n, urteko laburpen-ereduen emaitzen kopurua eta Administrazioetan sartutako diru-sarrerren emaitzenak honako hauek izan ziren:

-Lurralde erkidea	196.670.021,90
-Araba	947.599,76
-Gipuzkoa	732.236,17
-Nafarroa	5.039.507,80
-Bizkaia	11.974.215,09

- Hala eta guztiz ere, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak azaldu diren eta 1 ERAKUNDEAK dagozkion foru-lurraldeetan tributatu zuen bi eragiketak ikuskatu zituenez eta akta horiek 2012ko urtarrilaren 29an irmotasuna lortu zuten, uste du, akta horietan azaldutako irizpideak oinarritzat hartuta, aitortutako eragiketa guztiak lurralde erkidean aitortu behar zirela eta, beraz, Zerga Agentzian; hortaz, 11.974.215,09 euroko okerreko diru-sarrera egin bide da Bizkaian. Horregatik, eskatzen du 2011ko ekitaldiari dagokion BEZaren hileko aitortpena egiteko 303 erdua eta urteko laburpena egiteko 390 erdua zuzentzeko, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 120.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta okerreko diru-sarreratzat hartzeko Bizkaiko Foru Aldundian sartutako 11.974.215,09 euroko zenbatekoa, eta zenbateko hori itzultzeko.

- Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi du, halaber, adostasun-aktetan honako hau azaltzen dela:

- 1 ERAKUNDEAREN jardura nagusia Petrolio eta Lubrifikatzaileen Handizkako Merkataritza da eta ekonomia-jardueren gaineko zergaren 6.165 epigrafean alta emanda dago. Era berean, ikusten da alta emanda dagoela

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

ekonomia-jardueren gaineko zergaren 631. epigrafean ere (Merkataritza Artekariak).

- 2008ko ekainaren 13an, Nafarroako Foru Ogasuna 1 ERAKUNDEAREKIN harremanetan jarri zen eta eskatu zion BEZari dagokionez batera aitortpena egiteko eta tributatzeko Estatuko Administrazioan eta Nafarroako Ogasunan, egindako eragiketa guztiengatik Estatuko Administrazioan tributatu ordez, orain arte egiten zuen bezala. Nafarroako Foru Ogasunak jakin zuen 1 ERAKUNDEAK erregaiz eta gasolinaz hornitzen zuela Nafarroan kokatuta zegoen gordailu fiskal batetik, 2 ERAKUNDEAREN gordailu fiskal batetik, eta horregatik eskatu zion aldaketa hori egiteko.

- 2008ko azaroaren 24an, Estatuko Administrazioak, dagozkion egiaztapenak egin ondoren, 1 ERAKUNDEAK eskatutako BEZaren likidazioen zuzenketak kontuan hartzea erabaki zuen, eta jakinarazi zuen Nafarroako Foru Ogasunera transferituko zituela zuzenketa horri dagozkion BEZaren kuotak.

- 2010eko maiatzaren 7an, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1 ERAKUNDEARI jakinarazi zion alta eman behar zuela bere erroldan 036 ereduaren bitartez, uste zuelako erakundeak gasolioa merkaturatzeko eragiketak "ERAKUNDE JAULKITZAILEAREN Txartela" sistemaren bitartez egiten zituela Gipuzkoako gasolina-zerbitzuguneetan, eta, beraz, BEZarengatik lurralde horretan ordaindu behar zuela zerga.

- 2010eko uztailaren 22an, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1 ERAKUNDEARI eskatu zion 2006tik 2009ra bitarteko ekitaldietako BEZaren aitortpenak aurkezteko, eta erakundeak 2010eko urriaren 4an bete zuen errekerimendu hori.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

- 2010eko urriaren 8an, 1 ERAKUNDEA Estatuko Administrazioarekin harremanetan jarri zen Gipuzkoako Foru Ogasunnean egindako jardunen berri emateko, eta eskatu zion Estatuko Administrazioan aurkeztutako aitortpenak zuzentzeaz gain Gipuzkoako Foru Ogasunera transferitzeko Estatuko Administrazioan oker sartutako zenbatekoak.

- 2011ko otsailaren 22an, Estatuko Administrazioak, alde batetik, 2006tik 2008ra bitarteko ekitaldiei eta, bestetik, 2009ko eta 2010eko ekitaldiei dagokien BEZa ikuskatzeko jardunei ekin zien 1 ERAKUNDEAREN aurka. Jardun horien ondorioz, bi adostasun-akta egin ziren. Akta horiek 2011ko azaroaren 29an sinatu ziren eta 2012ko urtarrilaren 29an hartu zuten irmotasuna, 1 ERAKUNDEAK ez zuelako haien aurkako errekurtsorik jarri akta horietatik eratorritako likidazioak jakinarazitzat eman zirenetik zenbatzen hasita hilabeteko epean.

- Ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi du Zerga Administrazioko Estatu Agentziak bereizita aztertu dituela “ERAKUNDE JAULKITZAILEAREN txartelen” bitartez egindako eragiketak eta erregaia eta gasolina gordailu fiskaletatik ateratzeko eragiketak. 1 ERAKUNDEAREN jardun-ildo handiak honela laburbildu ditu:

- 1 ERAKUNDEAK taldeko filialaren bitartez ustiatzen du bere gasolina-zerbitzuguneeen sarea, hots, 3 ERAKUNDEAREN bitartez. Bi erakundeak Madrilen daude helbideratuta: 1 HELBIDEA.

- 3 ERAKUNDEA Bizkaiko lurraldean kokatuta dauden bi gasolina-zerbitzuguneren kudeaketaren titularra da; zerbitzugune bat Muxikan dago eta bestea Zornotzan. Bi gasolindegiek ORDAINKETA-TXARTELEN ERAKUNDE JAULKITZAILEAREN irudia erabiltzen dute eta honela jarduten dute:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

- 1 ERAKUNDEAK akordio bat sinatu du 3 ERAKUNDEAREKIN, hots, Bizkaian dauden ORDAINKETA-TXARTELEN ERAKUNDE JAULKITZAILEAREN markako bi gasolina-zerbitzuguneen kudeatzaile denarekin, eta, akordio horren bitartez, txartel elektronikoak jaulkitzen ditu eta txartel horiek gasolina-zerbitzugune horietan ordaintzeko bitarteko gisa onartzen dira ondasun eta zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko.

- 1 ERAKUNDEAK bi gasolina-zerbitzugune horietako bezeroen esku jartzen du aipatutako txartela eskatzeko aukera. Bezero horiek ordaintzeko bitarteko gisa erabili ahal izango dute txartel hori; horretarako, Ordainketa Komisioko Kontratu bati atxiki beharko zaizkio beren izenean. Kontratu hori inprimaki batean formalizatuko da, eta inprimaki horretan sinatzailearen datuak eskatuko dira, baita enpresaren edo titularraren datuak eta eskatutako txartelen datuak ere, eta, eranskin gisa, kontratuaren baldintza orokorrak azalduko dira. Bizkaian kokatutako bi gasolina-zerbitzuguneetan txartelen erabiltzaileei honako ondasun eta zerbitzu hauek soilik eskuratzeko aukera eskaintzen zaie: automozioiko gasolioa, erregaiak eta gasolina, lubrifikatzaileak, automobilerako osagarriak eta pneumatikoak eskuratzea, eta gasolina-zerbitzuguneetan kokatuta dagoen garbiketa-tunelak ematen diren zerbitzuak baliatzea. Ordaintzeko bitarteko gisa ERAKUNDE JAULKITZAILEAREN txartela erabiliz eskura daitezke ondasun edo zerbitzu horiek.

- Kontratuaren baldintza orokorretan honako hau ezartzen da: "Txartela erabiltzeak erosketa-agente komisioidun bihurtzen du 1 ERAKUNDEA; agente horrek bere izenean eta bere kontura eta arriskuan jarduten du txartela erabiliz egindako transakzio bakoitzean. Hortaz, ulertuko da txartelarekin eskuratuko diren ondasunak eta zerbitzuak aldez aurretik transmitituko zaizkiola 1 ERAKUNDEARI. Erakunde horrek, halaber, bere titularrari fakturatuko dizkio

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

itundutako baldintzen arabera”. Baita honako hau ere: “Egin den eragiketa egiaztatzeko establezimenduak egiten dituen emate-frogagiriak txartelaren titularrek edo erabiltzaileek sinatu beharko dituzte”, eta “sinadura horrek berekin dakar establezimenduak 1 ERAKUNDEAREN alde egindako salerosketa-eragiketa baliozkoa dela onartzea”.

- 1 ERAKUNDEAK akordioak sinatu ditu 2 ERAKUNDEAREKIN, eta, 2010ean, aldizka, 4 ERAKUNDEAREKIN, hots, Bizkaiko bi gordailu fiskalak kudeatzen dituztenekin; hortaz, bi enpresek zerbitzu logistikoak eta erregaia eta gasolina biltegiratzeko zerbitzuak eskaintzen dizkiote edo eskaini dizkiote 1 ERAKUNDEARI gordailu fiskal bakoitzean; era berean, 1 ERAKUNDEAK petrolio-produktu horiek merkaturatzen ditu, eta merkaturatze hori erregaia gordailu fiskaletatik ateratzeko eragiketekin gauzatzen da. Kasu guztiak, beraz, hirugarrenen gordailuak dira, eta gordailu horietan 1 ERAKUNDEAREN jabetzako erregaia jaso, biltegiratu eta saldu zen.

3.- 2015eko otsailaren 6ko data duen eta otsailaren 9an postetxean aurkeztu zen idazki baten bidez, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak alegazioak egin zituen Bizkaiko Foru Aldundiak gatazka planteatzeko aurkeztutako idazkiari erantzuteko.

4.- Eztabaidak honako honetan jartzen du arreta: alde batetik, ERAKUNDE JAULKITZAILEAREN txartelen bitartez Bizkaiko bi gasolindegietan (Muxikakoan eta Zornotzakoan) egindako eragiketen tributazioan, eta, bestetik, Bizkaian kokatutako gordailu fiskaletatik erregaiaren irteera materiala egiteko 1 ERAKUNDEAK egindako eragiketen tributazioan.

- Lehenengo eragiketa multzoari dagokionez, esan behar da Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez eragiketa horiek ondasun-emateak direla eta, hortaz,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

Bizkaian egindako eragiketatzat hartu behar direla, baina, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren ustez, ordea, zerbitzu-egitetzat hartu behar dira (zehazki, interpretatzen du finantza-izaera duten eragiketak direla eta, beraz, lurralde erkidean egindako eragiketatzat hartu behar direla). Bigarren eragiketa multzoari dagokionez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak adierazi du lurralde erkidean tributatu behar dela eragiketa horiengatik, merkaturatzea ez delako foru-lurraldean egiten, gordailu fiskalak ez direlako haren jabetzakoak, baina Bizkaiko Foru Aldundia ez dago ados konponbide horrekin; izan ere, aldundi horren ustez, nahiz eta hori egia izan, eragiketa horiek Bizkaian egindakotzat hartu behar dira.

5.- 2014ko ekainaren 27an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak gatazka planteatzeko idazkia aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren aurka, 1 ERAKUNDEAK Bizkaiko Foru Aldundian sartutako 2011ko BEZaren ordainarazpenerako eskumenari buruzko iritzia eman zezan Arbitraje Batzorde honek. Idazki horretan honako hau adierazten da:

- 2011ko azaroaren 29ko adostasun-aktak –arestian aipatu direnak eta 1 ERAKUNDEARI ireki zaizkionak– oinarritzat hartuta, 1 ERAKUNDEAK, 2012ko otsailaren 10ean, hau da, akta horiek irmotasuna hartu eta egun gutxi batzuk geroago, idazki bat igorri zuen Zerga Administrazioko Estatu Agentziara. Idazki horretan, aipatutako erakundeak eskatzen zuen 2011. urteari dagokion BEZaren hileko aitorpenak (303 eredua) eta urteko aitorpena (390 eredua) zuzentzeko, Estatuari % 100eko tributazioa esleitzuz.

- 2012ko otsailaren 28ko idazki horren ondorioz, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu zion zergapekoak 2011. urteko BEZari dagokionez aldundi horri oker sartutako zenbatekoak itzultzeko (11.974.215,09 euro).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

- 2014ko martxoaren 27an, Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinarazi zion uko egiten ziola eskaera hori betetzeari.

- Zerga Administrazioko Estatu Agentziak, 2014ko maiatzaren 22an, Bizkaiko Foru Aldundiari inhibizioa eskatu zion aipatutako zenbatekoa itzuli zezan.

- 2014ko maiatzaren 29an, Bizkaiko Foru Aldundiak ez zuen onartu aipatutako inhibizio-errekerimendua.

- 2014ko ekainaren 17an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak gatazka hau aurkezteko erabakia hartu zuela jakinarazi zion Autonomia Erkidegoetako eta Tokiko Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiarri. Jakinarazpen hori, dagoeneko esan dugunez, 2014ko ekainaren 27an aurkeztu zen.

- Gatazka izapidetzea onartu zen 2014ko abenduaren 1ean, 27/2014 zenbakia esleitu zitzaion eta zentzu horretan hartutako erabakia 2014ko abenduaren 3an jakinarazi zen.

- Gatazka hori ere honako honetan oinarritzen da: alde batetik, ERAKUNDE JAULKITZAILEAREN txartelen bitartez Bizkaiko gasolindegietan egindako eragiketen tributazioan, eta, bestetik, Bizkaian kokatutako gordailu fiskaletatik erregaiaren irteera materiala egiteko 1 ERAKUNDEAK egindako eragiketen tributazioan; hori guztia 2011. urtera mugatuta oraingo honetan. Bi administrazioen argudioak ere Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 2011ko azaroaren 29an egindako adostasun-aktetan oinarrituta daude; gogoan izan akta horiek 2006tik 2010era bitarteko ekitaldiei buruzkoak direla.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

6.- Abenduaren 12an, Bizkaiko Foru Aldundiak alegazioak aurkeztu zituen, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren planteamenduari aurka egiteko. Alegazioa horiek Bizkaiko Foru Aldundiak berak 18/2014 gatazkan argudiatutako arrazoiak dira.

7.- 2015eko maiatzaren 6an, Arbitraje Batzorde honek 18/2012 eta 27/2004 gatazka metatzea erabaki zuen, eta erabaki horren berri eman zien, ondoren, bi administrazioei (estatukoari eta Bizkaikoari) eta 1 ERAKUNDEARI.

8.- Hori ikusirik, estatuko eta foruko administrazioek beste alegazio batzuk aurkeztu zituzten. Alegazio horiei 2015eko ekainaren 12an eman zitzaien sarrera Arbitraje Batzorde honetan, eta berriro ere argudio berak aipatu zituzten.

9.- 2016ko apirilaren 14an, EAEEJren 17.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Arbitraje Batzordeak Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eskatu zion dokumentazio jakin bat emateko; dokumentazio hori ez zen espedientean azaltzen, baina Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 2011ko azaroaren 29an egindako Adostasun Aktetan, hainbeste aldiz aipatu direnetan, ordea, azaltzen zen. Zehazki, honako dokumentazio hau eskatu zitzaion:

- 1 ERAKUNDEAK Bizkaian kokatutako gasolina-zerbitzuguneekin egindako kontratuaren kopia.

- 1 ERAKUNDEAK bere bezeroekin (garraiolariak) ibilgailuak, autoak (*fleet*) nahiz kamioiak (CRT) erregaiz hornitzeko sinatutako kontratu-ereduaren kopia.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

- 1 ERAKUNDEAREN TALDEAK 2 TALDEAREKIN sinatutako kontratuaren kopia, "ERAKUNDE JAULKITZAILEAREN" merkataritza-txartela jaulkitzeari buruzko kontratuarena.

- 1 ERAKUNDEAREN TALDEKO ORDAINKETA-TXARTELEN ERAKUNDE JAULKITZAILEAREN gasolina-zerbitzuguneekin 1 ERAKUNDEAK sinatutako kontratuaren kopia.

- 1 ERAKUNDEAK 2 ERAKUNDEAREKIN eta 4 ERAKUNDEAREKIN sinatutako kontratuaren kopia.

- 1 ERAKUNDEAK Bizkaian dituen baliabide material eta pertsonalen egituraren xehetasuna".

- Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 2016ko maiatzaren 13an eman zuen informazio hori, data hori duen eta 16an erregistratu zen idazki baten bidez, eta honako dokumentu hauek erantsi zizkion:

- Autoetarako (flotak) eta kamioietarako (CRT) ORDAINKETA-TXARTELEN ERAKUNDE JAULKITZAILEAREN atxikipen-kontratua

- 1 ERAKUNDEAN eta gasolina-zerbitzuguneetan erabiltzeko ORDAINKETA-TXARTELEN ERAKUNDE JAULKITZAILEA zerbitzu motako kontratua

- ORDAINKETA-TXARTELEN ERAKUNDE JAULKITZAILEAREN eta 2 ERAKUNDEAREN arteko zerbitzu logistikoen kontratua

- 1 ERAKUNDEAREN eta 2 ERAKUNDEAREN arteko zerbitzu logistikoen kontratua

- Gainera, 1 ERAKUNDEAK Bizkaian dituen baliabide material eta pertsonalen egituraren xehetasunei dagokienez, Arbitraje Batzorde honi jakinarazi zion, 2011ko azaroaren 26ko Eginbidean azaltzen denez, agertutakoak honako hau adierazi zuela:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

“Nafarroako, Arabako eta Bizkaiko gordailu-instalazioak 2 ERAKUNDEARENAK dira eta 1 ERAKUNDEAK ez dauka bere jabetzako gordailurik foru-lurralde horietan. Horrez gain, 2010eko ekitaldian, 1 ERAKUNDEAK 4 ERAKUNDEAREN gordailu bat erabili zuen denbora batez. Kasu guztiak hirugarrenen gordailuak dira, eta gordailu horietan 1 ERAKUNDEAREN jabetzako erregaia jaso, biltegiratu eta saldu zen.

1 ERAKUNDEAK foru-lurralde horietan ez dauka 1 ERAKUNDEAREN izenean eta haren kontura kontratatzeko gaitasuna duen enplegaturik.

- Azkenik, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak Arbitraje Batzordeari eskatu zion gatazkaren espedientera dokumentazio berria ekartzen bada dokumentazio hori agerian jartzeko eta horri buruzko alegazioak izapidetzeko, EAEEJren 16. artikulua araberan.

- 2016ko apirilaren 14an, helburu berarekin, 1 ERAKUNDEAK 1 ERAKUNDEAREN TALDEKO filialarekin, hots, 3 ERAKUNDEAREKIN sinatutako kontratuaren kopia ere eskatu zitzaion Bizkaiko Foru Aldundiari, eta dokumentazio hori hilaren 21ean aurkeztu zen.

- Dokumentazio hori Administrazioetara eta zergapekoari bidali zitzairen. Soilik Bizkaiko Foru Aldundiak formulatu ditu alegazioak, 2017ko otsailaren 8an.

10.- Prozedura abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onartutako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan xedatutakoaren arabera izapidetu da.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Espedientean dagoen dokumentazio guztia eta administrazio interesdunek emandako argudioak aztertu ondoren, esan dezakegu Auzitegi Gorenaren epaiak lehendik ebatzi dituzten beste kasu batzuen antzeko kasu bat dela hau; nolana ere, Nafarroarekin sinatutako Ekonomia Hitzarmenari dagokionez, zehazki, honako argudio hauek hartu dira kontuan: alde batetik, Auzitegi Gorenaren 2016ko abenduaren 13ko Epaiak emandakoa, 37/2016 zenbakiko errekurtsua, zeinaren bitartez berresten baita ERAKUNDE JAULKITZAILEAREN txartelen bitartez egindako eragiketen tributazioari buruz Nafarroako Arbitraje Batzordeak 2015eko irailaren 9an emandako Ebazpenean (59/2013 gatazkari dagokiona) defendatutako irizpidea, eta, bestetik, Auzitegi Gorenaren 2016ko urriaren 9ko Epaiak emandakoa, 13/2015 errekurtsua, zeinaren bitartez berresten baita erregaia Nafarroan kokatuta dauden gordailu fiskaletatik materialki ateratzeko egindako eragiketen tributazioari dagokionez Ekonomia Hitzarmeneko Arbitraje Batzordeak 2014ko urriaren 9an emandako ebazpenaren bidez (51/2012 gatazkari dagokiona) defendatzen den irizpidea; eta, azkenik, Auzitegi Gorenak 2017ko urtarrilaren 31n emandakoa, 35/2016 zenbakiko errekurtsua, zeinaren bitartez berresten baita Nafarroako Arbitraje Batzordeak 2015eko uztailaren 16an emandako Ebazpena –hori ere Nafarroan kokatuta dauden gordailu fiskaletatik erregaia materialki ateratzeko eragiketei buruzkoa– (60/2013 gatazkari dagokiona); hortaz, hiru epai horietan Auzitegi Gorenak eman duen konponbide bera eman beharko dugu guk ere, Ekonomia Itunean aurreikusitako eta aplikatutako lotuneak eta Ekonomia Hitzarmenean aurreikusitakoak berdinak direlako. Konponbide horren alde azaldu da Bizkaiko Foru Aldundia ere 2017ko otsailaren 8ko idazkian.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

2.- ERAKUNDE JAULKITZAILEAREN txartelen bitartez egindako eragiketen tributazioari dagokionez, lehenik eta behin adierazi behar dugu hau ez dela gure iritzia ematen dugun lehenengo aldia, 10/2012 gatazka zela medio ere eman baikenuen. Orduan eman genuen ebazpenean (R7/2017 zenbakia du, eta 2017ko maiatzaren 12ko data du), aurretik aipatu dugun planteamenduari jarraitu genion, hau da, Ekonomia Hitzarmenaren ikuspegitik antzekoa den arazoari dagokionez Auzitegi Gorenak deklaratu zuenari eustea. Ondoren azalduko diren oinarrietan aipatuko ditugu haren alderdi nagusiak.

3.- Alde horretatik, gogora dezagun Auzitegi Gorenaren 2016ko abenduaren 13ko Epaiak ondasun-emateari dagokionez honako hau adierazten duela: "Europako jurisprudentziak etengabe ezartzen du ondasun-emateen kontzeptuak ez diela erreferentzia egiten zuzenbide nazional aplikagarriak jabetza eskuz aldatzeko ezartzen dituen moduei, baizik eta ondasun gorpuzdun bat eskuz aldatzeko alderdi batek egindako eragiketa oro sartzen duela; kasu horretan, alderdi batek beste alderdiari ahalmena ematen dio benetan eskuratzeko, azken alderdi hori ondasun horren jabea izango balitz bezala. Hortaz, ez da estatu kide bakoitzaren legeriaren arabera juridikoki mugatuta dagoen kontzeptu bat, baizik eta kontzeptu ekonomikoa da, eta eragiketarekin zer ahalmen ematen diren kasu bakoitzean aztertu behar da, jabeari dagozkion ahalmenekin alderatuta, sortzapena ezartzeari dagokionez, sortzapen horrek adierazten baitu eskuratzailerak noiz den ahalmen horien titularra dena delakoa baliatu dezakeelako. Horren haritik, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 75.1 artikulua ekarri behar da hizpidera, artikulua horretan ezartzen baita ondasun-emateetan «ondasuna eskuratzaileraren eskura jartzen denean» izango dela sortzapena. Eta Europako jurisprudentziak etengabe interpretatzen du Seigarren Zuzentarauaren 5. artikulua honela; "ondasun-ematezat" hartzen da "ondasun gorpuzdun bat eskuratzeko ahalmena eskuz aldatzea bere jabeari

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

esleitutako ahalmenekin, ondasunaren jabetza juridikoa eskuz aldatzen ez bada ere".

Gogoratuko denez, 2006ko azaroaren 28ko Kontseiluaren 2006/112/EE Zuzentarauak, balio erantsiaren gaineko zergaren sistema komunari buruzkoak, 14. artikuluan honako hau ezartzen du:

- “1. Ondasun gorpuzdun bat jabeak duen ahalmen berarekin baliatzeko ahalmena eskuz aldatzea hartuko da «ondasun-ematetzat».
2. 1. zenbakian azaltzen den eragiketaz gain, honako eragiketa hauek ere ondasun-ematetzat hartuko dira:
  - a) agintaritza publikoak eskatuta, edo haren izenean edo Legeak aurreikusitako baldintzetan, ondasunen jabetza eskuz aldatzea, kalte-ordainarekin;
  - b) kontratuen arabera ondasun-emate materiala: ondasuna denboraldi jakin batean alokatzeko kontratuak, eta ondasunak epeka saltzeko kontratuak, baldin eta gertakarien ohiko bilakaeran haien erabateko jabetza gehienez ere azken epemuga ordaintzen denean eskuratzen bada;
  - c) erosketa-komisioko edo salmenta-komisioko kontratuei jarraikiz egindako ondasun-eskualdaketa.
3. Higiezinetan egindako obra jakin batzuk ematea ondasun-ematetzat hartu ahal izango dituzte estatu kideek.

- Gatazka honetan zer baldintzatan eztabaidatu den kontuan hartuta, arreta jarri behar zaio zuzentarauaren 14.2.c) artikuluan ezartzen denari. Bestela ezin, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legeak eta Bizkaiko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauak ondasun-emateen artean sartzen dute kasu hori ere (8. artikuluan Bi zenbakiaren 6. zenbakia, bi kasuetan).

- Auzitegi Gorenaren 2016ko abenduaren 13ko Epaiaren arabera, kasu honi aplika dakioke 33.6, A) artikulua, zeinari jarraikiz Nafarroan egindakotzat hartuko baitira zergari atxikitako eragiketak honako arau hauen arabera:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

**“1.** Ondasun higigarri gorpuzdunak ematea, ematen dituenak berak fabrikatu edo eraldatu baditu eta subjektu pasiboaren fabrika edo eraldaketarako zentroak Nafarroako lurraldean badaude.

Subjektu pasibo horrek fabrika edo eraldaketarako zentroak bai Nafarroan bai lurralde erkidean dituenen ere bai, baldin eta emandako ondasunak fabrikatzeko edo eraldatzeko azken prozesua Nafarroan egin badu.

**2.** Emateak direla-eta industriako elementuren batzuk Nafarroatik kanpora instalatu behar badira, emate horiek Nafarroako lurraldean egindakotzat hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira: gertatzeko eta fabrikatzeko lanak lurralde horretan egin izatea eta instalatu edo muntatzeko kostua kontraprestazio guztiaren ehuneko 15 baino handiagoa ez izatea.

Era berean, elementu industrialen emateak direla-eta Nafarroan instalazioren bat egin behar denean, gertatu eta fabrikatzeko lanak lurralde erkidean egiten badituzte eta instalatu edo muntatzeko kostua kontraprestazio guztiaren ehuneko 15 baino handiagoa ez bada, emate horiek ez dira hartuko Nafarroako lurraldean egindakotzat.

**3.** Energia elektrikoa ekoizten dutenek egindako emateak, energia hori sortzen duten zentroak Nafarroako lurraldean baldin badaude.

**4.** *Ondasun higigarri gorpuzdunen gainerako emateak, Nafarroako lurraldetik bertatik eskuratzailerearen esku jartzen direnean. Ondasun horiek garraiatu egin behar badira jaso behar dituenaren eskuetan uzteko, halakoetan, espedizioa edo garraioa hasten denean ondasunak non dauden, han egindakotzat hartuko da ematea.*

**5.** Ondasun higiezinaren emateak, ondasunok Nafarroako lurraldean baldin badaude”.

- Zehazki, aplika daitekeen araua Hitzarmenaren 33.6 artikularen A) letraren 4. zenbakian aurreikusitakoa da.

- Hitzarmenaren artikulua horren baliokidea Ekonomia Itunaren 28. artikularen Bat zenbakiko A) letra da, *Eragiketen lekua* izenburua duena, eta honela dio:

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

«Bat. Ekonomia Itun honen ondorioetarako, honako arau hauek betetzen dituztenak hartuko dira, zergari lotuta dauden eragiketen artetik, Euskadiko lurralde historikoetan egindakotzat:

A) Ondasun-emateak:

1. *Ondasun higigarri gorpuzdunak ematea, Euskadiko lurraldetik bertatik eskuratzailaren esku jartzen direnean. Ondasun horiek garraiatu egin behar badira jaso behar dituenaren eskuetan uzteko, halakoetan, espedizioa edo garraioa hasten denean ondasunak non dauden, han egindakotzat hartuko da ematea.* Arau horrek honako salbuespen hauek izango ditu:

a) Ondasun horiek eraldatuta baldin badaude eta ondasunak eman behar dituenak berak eraldatu baditu, ondasun horiek Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira azken eraldatze-prozesua Euskadin egin bada.

b) Emate horiek direla-eta Euskaditik kanpora industria-arloko elementuren batzuk instalatu behar badira, emateak euskal lurraldean egindakotzat hartuko dira baldin eta gertatzeko eta fabrikatzeko lanak lurralde horretan egiten badira eta instalatu edo muntatzeko kostua kontraprestazio guztiaren % 15 baino handiagoa ez bada.

Era berean, elementu industrialen emateak direla-eta Euskadin instalazioren bat egin behar denean, gertatu eta fabrikatzeko lanak lurralde erkidean egiten badituzte eta instalatu edo muntatzeko kostua kontraprestazio guztiaren % 15 baino handiagoa ez bada, emate horiek ez dira hartuko euskal lurraldean egindakotzat.

c) Erkidegoko beste estatu batetik abiatuta igorri edo garraiatu behar diren ondasunak badira, eta balio erantsiaren gaineko zergari buruzko arautegian ezarritako betekizunak betetzen badira urrutiko salmentaren araubidea aplikatzeko, ondasun-ematea Euskadin egindakotzat joko da ondasunaren garraioa Euskadiko lurraldean amaitzen bada.

2. Elektrizitate-energia ekoizten dutenek egindako emateak, energia hori sortzen duten zentroak euskal lurraldean baldin badira.

3. Ondasun higiezinen emateak, ondasunok euskal lurraldean badaude.”

- Aplikatu daitezkeen araua 28. artikulua Bat zenbakiaren A) letraren 1. zenbakian aurreikusitakoa da.

4.- Hortaz, merezi du zabal samar ekartzea hona 2016ko abenduaren 13ko epaiaren bosgarren oinarri juridikoaren zati bat, 1 ERAKUNDEAK jarduten

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

duen moduarekin pareka daitekeelako; zehazki, honako paragrafo hauek dira interesgarriak:

“Ondoren azalduko diren egitateak garrantzitsuak dira. AS 24 jarduera nagusia mota guztietako erregaien txikizkako merkataritza duen erakunde bat da, ikusten da alta emanda dagoela ekonomia-jardueren gaineko zergaren 655.1 epigrafean, eta batez ere erregaiz hornitzen ditu bere bezeroak itundutako baldintzetan, eta ez dauka gasolina-zerbitzugunerik Nafarroan; horregatik, hornidura hainbat gasolina-zerbitzugunetatik egiten da, zerbitzugune horiekin akordio batzuk sinatu ondoren. AS 24 ez da finantza-erakunde bat, eta haren jarduera ez da finantza-zerbitzuak egitea, alde batera utzi gabe bere bezeroei txartel bat ematen diela gasolina-zerbitzuguneetan jasotzen dituzten prestazioak ordaintzeko.

Bere bezeroekin sinatutako kontratuari merkataritza-kreditu bat ematea deitzen zaio, eta, arestian adierazi dugunez, ordaintzeko bitarteko bat jartzen du bere bezeroen esku, AS 24 txartela, gasolina-zerbitzuguneetan jasotako prestazioak ordaintzeko; era berean, jasotzen da bezeroak AS 24ri jarduna agintzen diola erosketaren komisioidun gisa bere izenean eta bezeroaren kontura ordaintzeko bitartekoak erabiliz –hau da, AS 24 txartela erabiliz– egiten diren erosketetan.

Bestalde, AS 24k gasolina-zerbitzuguneen jabeak diren erakundeekin egiten ditu kontratuak zerbitzugune horiek erregaiz eta beste zerbitzu batzuek hornitzeko bere bezeroak. Hainbat kontratu hitzartu ditu. Guri interesatzen zaiguna AGIP ESPAÑA SArekin egiten duena da. Kontratu horretan jasota dago AS 24ren jarduera zein den, hau da, gasolioa eta petrolioaren beste deribatu batzuk saltzea eta merkaturatzea kudeaketa automatiko elektriko bidez, eta hori erakunde horrek erregaiz hornitzeko emandako txartel baten

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

bitartez egin daiteke; horretarako, erregaia saltzeko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia guztiak eduki behar ditu; AGIP da instalazioen titularra, eta eskusiboki AS 24 erakundearen esku jarri ditu hornigailu horiek, eta AS 24 erakundeak AGIPi erosten dio honek AS 24 txartelaren titularrak diren AS 24ren bezeroei emango dien erregaia, eta instalazioak erabiltzeagatik eta erregaia erosteagatik kontraprestazio gisa itundutako zenbatekoak ordaintzen dizkio AS 24k AGIPi, bere bezeroei emandako litroen arabera; AGIPEk konpromisoa hartzen du bere instalazioak erabiltzeko baimena emateko eta instalazioak behar bezala kontserbatzeko, ematen duen erregaiaren kalitatea eta AS 24 txartela erabiltzeko beharrezkoa den egitura bermatuz.

Azken batean, itundutako zirkunstantzia eta baldintza guztietatik ondorioztatzen dugu jardunbide guztiaren helburu nagusia AS24k bere bezeroak bere erregaiarekin eta haiekin itundutako baldintzetan hornitzea dela. Ondoren sinatutako gainerako akordioak xede nagusi hori –hots, erregaiaren hornidura– bideragarri egiteko dira. Bere bezeroari dagokionez, AS 24 erakundeak konpromisoa hartu du hornidura hori emateko alde aurretik itundutako hainbat gasolina-zerbitzugunetan hala eskatzen duenean, bere izenean eta besteren konturako erosketa-komisioaren erregimenean; hori horrela izanik, emango den erregaia AS 24 erakundearen jabetzakoa izango da, eta, erregai hori gasolindegiz-zerbitzugune horietan hartzen laguntzeko, bezeroari kreditu-txartel bat ematen zaio baimendutako establezimenduetan ordaintzeko. AS 24 erakundeak Nafarroan bere jabetzako gasolina-zerbitzugunerik ez duenez, zerbitzugune horien titular batzuekin hitzartu du zerbitzugune horietatik erregaiz hornitzea AS 24 txartela duten bezeroak; horregatik, horretarako behar diren instalazioen lagapena hitzartzen dute, erregaia alde aurretik eskuratzen du eta bere bezeroei emandako erregaia eta instalazio horien lagapena ordaindu egiten du arestian adierazitako baldintzen arabera.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

Zirkunstantzia horien arabera, bidezkoa da, beraz, ondasun-emateak diren ala zerbitzuak egitea diren argitzea, tartean diren administrazioen artean banatzeko eskumenak. AS 24 erakundeak EUROCAMekin antolatutako eragiketaren eta AGIPEkin antolatutakoaren artean dagoen alde bakarra da, AS 24 erakundea bere bezeroekin lotzen duen kontratua berdina izanik, EUROCAMekin ez dela zalantzan jartzen AS 24 erakundeak ematen duen erregaia zuzenean erosten diela hornitzaileei, eta AS 24 txartela duten bezeroak hornitzeko erregaia AS 24 erakundetik bezeroengana iristen dela; AGIPen gasolina-zerbitzuguneei dagokienez, berriz, nahiz eta AS 24 erakundeak AGIPEkin hitzartuta daukan AS 24 txartela duten bezeroak hornitzearekin batera AS 24 erakundeak erregaia erosten duela, badirudi Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ukatu egiten duela eskualdaketa hori dagoela (konturatu da eskaera egiteko erabili diren hitzek zalantzak sorrarazten dituztela); horregatik, uste du erregai hori zuzenean ematen dietela gasolindegiek AS 24ren bezeroei, zeinek gasolioa AS 24 erakundeak emandako kreditu-txartelarekin ordaintzen baitute. Hau da, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak bere alegazioetan egiten duen bezala, ukatu egiten da norberaren izenean eta bere bezeroen kontura egindako erosketakomisioak direla, finantza-zerbitzuak emateadirelakoan.

Dagoeneko adierazi dugunez, eragiketa osoaren funtsezko helburua, erregaia fisikoki emateko gasolina-zerbitzuguneeekin ezarritako akordioa bata edo bestea izan, helburua alde zuzenetik adostutako baldintza berezi batzuetan garraiolari jakin batzuk gasolioz hornitzea besterik ez da; kontratu horrek definitu eta mugatzen ditu helburu horretarako –hots, erregaiaren hornidurarako– antolatutako eragiketa guztiak eta eragiketa horien konplexutasuna. Hori argi ikusten da, gainera, AS 24 erakundearen jardura zein den kontuan hartzen badugu, hau da, erregaiaren txikizkako merkataritza

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

dela eta ez duela finantza-sektorean jarduten eta helburu hori betetzeko, eta kontuan hartzen badugu txartelak erabiltzea eskaintzen dela eta besteren titulartasuneko gasolina-zerbitzuguneekin hitzartzen dela helburu hori betetzeko.

Aztertu behar da AS 24 erakundeak zergatik jartzen duen erregaia AS 24 txartela duten bezeroen eskura: gasolina-zerbitzugunea AS 24 erakundearen eskuetan geratu dela eta erakunde horrek bere bezeroen eskuetan jarri duela uste delako ala, aitzitik, gasolina-zerbitzuguneek AS 24 txartela duten bezeroei egindako emanaldi bakar bat soilik dagoela uste delako. Lehenengo kasuan, ondasun-emateak dira; bigarren kasuan, aldiz, zerbitzuak egitea.

Dagoeneko adierazi dira kontratuen baldintzak, eta, baldintza horien arabera, argi dago honako hau hitzartu dela: alde batetik, AS 24 erakundearen eta haren bezeroen arteko komisio bat, bere izenean eta besteren kontura erregaiz hornitzeko, eta, bestetik, AS 24 erakundearen eta AGIPen arteko salerosketa bat, AS 24 izateko AGIPek AS 24 txartela duten bezeroei zerbitzatuak dien erregaiaren jabea. Gorago ere esan dugu komisioidunak bere izenean eta besteren kontura jarduten duen erosketa-komisioko eragiketen kasu horietan –aztertzen ari garen kasua ere horrelakoa da– ondasun-ematetzat hartzen direla eragiketok BEZaren ondorioetarako; komisioiduna behartuta dago hirugarren bati ondasunak erostera –kasu honetan, erregaia erostera– komisio-ematearen alde; argi eta garbi bereizten da zerga-egitatea, hau da, komisioidunak komisio-emateari ematen dizkion ondasunak ematea, hornitzaileak komisioidunari ondasunak ematen dionean sortzen den sortzapenetik; teknikoki bi ondasun-emate bereiz daitezke: bata, hornitzaileak –kasu honetan, AGIPek–, komisioidunari –hots, AS 24 erakundeari– egiten diona, eta, bestea, erakunde horrek komisio-egileari –hots, AS 24 erakundearen bezeroei– egiten diona.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

(sic) Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ukatu egiten du, alde batetik, erosketa-komisio hori dagoela bere izenean eta besteren kontura, eta, bestetik, AGIPek AS 24 erakundeari benetan eskuz aldatzen diola erregaia; izan ere, azken batean bezeroei egintza-batasun batean eskaintzen zaie. Hala eta guztiz ere, dagoeneko esan da ondasun-ematearen kontzeptua BEZean ez dela juridikoa, ekonomikoa baizik; horregatik, ez da baztertu behar, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak egiten duen bezala, alderdiek hitzartutako komisioa oinarritzat hartuta juridikoki galera jakin batzuk daudela, komisio horren presentzia ahultzen dutenak; izan ere, mugatuta geratu denez, argi daude errealitatea, jarraitutako eragiketa eta, azken batean, egindako eragiketen helburu nagusia, zeinetan komisioa baita hornidura hori egin ahal izateko erabiltzen den erregimena eta erregimen horretan funtsezkoa baita AS 24 erakundeak erregaia aldeztatik erostea bere bezeroen alde ahalik eta modurik hoberenean eskaini ahal izateko erregai hori bezeroei; begien bistakoa da AS 24 erakundeak aldeztatik erosten duela erregaia bere izenean bere bezeroei emateko egunen batean, eta horrek, bere ezaugarri propio mugatzaileak dituenek, komisio bat eratzen du bere izenean eta besteren kontura. Azkenik, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak adierazi du ez dagoela AGIPen eta AS 24ren –hots, hornitzailearen eta komisiadunaren– arteko lehenengo eskualdatze hori, tarteko ekintzarik ez dagoenez, erregaia zuzenean ematen zaielako garraiolariari; horrekin gezurtatu egiten du AGIPen eta AS 24ren artean akordio bat dagoela; hala eta guztiz ere, ez dago aldiberekotasun hori eragozten duen inolako debekurik, eta, egiaztatuta geratu denez, AS 24ren eta AGIPen artean egituratutako eragiketa orok –hornigailuak lagatzeak, erabiltzen lagatzeagatiko kontraprestazioak, ezarritako kontraprestazioak, hornidura hori eta AGIPek beste erabiltzaileentzat egiten duen hornidura erabat bereizi ahal izateko mekanismoen instalazioak, eta AS 24 erakundeak txartelak dituzten bezeroei erregaia saltzeko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak eduki ditzan eskatzeak– soilik adierazten dute AS 24ren

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

bezeroak erregaiz nork hornitzen dituen identifikatzeko soilik balio dutela, eta haietako askok ez dauka zentzurik, AS 24k AGIP hornitu aurretik erregai aldez aurretik erosten duela ikusarazi eta benetako presentzia eman nahi ez bada”.

5.- Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Ikuskatzailearen 2011ko azaroaren 29ko adostasun-aktetan adierazten da 1 ERAKUNDEAREN jarduera nagusia, zeina BEZari atxikita baitago eta ez baitago BEZetik salbuetsita, ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafean (enpresaburua) 6.165 epigrafean sailkatuta dagoela (petrolioaren eta lubrifikaizaleen handizkako merkataritza); epigrafe horretan, ERAKUNDE JAULKITZAILEAREN txartelak erabiliz egindako eragiketei dagokienez, jarduteko modu bat deskribatzen da, eta jarduteko era hori, orokorrean, Auzitegi Gorenaren 2016ko abenduaren 13ko Epaiak ebatzitako kasuan deskribatutako jarduteko moduaren antzekoa da; horregatik, guk uste dugu bidezkoa dela konponbide bera aukeratzea, eta, beraz, Ekonomia Itunaren 28. artikulua Bat zenbakiaren A) letraren 1. zenbakian ezarritakoa aplikatzea.

Hortaz, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio Bizkaian kokatutako gasolindegiek egin zituzten eta ERAKUNDE JAULKITZAILEAREN txartela erabiliz ordaindu ziren erregai-emanaldietatik 2006. urtetik 2011ra bildu zuen BEZaren zatia.

6.- 1 ERAKUNDEAK egindako beste eragiketa multzo bat ere badago, eta eragiketa horien tributazioarekin ere ez daude ados; eragiketa horiek Bizkaian kokatuta dauden gordailu fiskaletatik erregai ateratzeko egiten direnak dira. Eragiketa horien berezitasuna da gordailu fiskal horiek ez direla erakunde horren jabetzakoak.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2012, 27/2014 eta metatuak	R11/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

Hori horrela izanik, Auzitegi Gorenaren 2016ko otsailaren 9ko Epaian adierazten da begien bistakoa dela benetan emateko eragiketak egiten diren leku bakarra –eta hori da lotunea– Nafarroan dagoen gordailu fiskala dela eta, gordailu hori zergapekoaren jabetzakoa ez bada ere, finkoa eta egonkorra dela, eta, gainera, honako hau adierazi behar da: “Iruñeko gordailua iraunkorra denez, aldizkakotasuna desagerrarazteak aukera ematen du emandako ondasunen balioa –eragiketa horiei dagokien ondasunena– igo dezaketen neurriak hartzeko, eta horrek laguntzen du ondorioztatzen gordailu horretan egiten dela eztabaida sortzen duen ematea”. Auzitegi Gorena, 2017ko urtarrilaren 31ko Epaian, zeinak erregaia Nafarroan kokatutako gordailu fiskaletatik ateratzea ere aipatzen baitu, ondorio berera iritsi da eztabaidatutako gaiaren egoerari buruzko laburpena egin ondoren. Ekonomia Itunetik aplikatu den agindua 33.6, A. 4. artikulua izan da.

Esan dugun bezala, landutako kasua gu orain lantzen ari garenaren antzekoa da, eta, horrela denez, Ekonomia Itunaren 28. artikulua Bat zenbakiaren A) letraren 1. zenbakian aurreikusitako araua aplikatu beharko dugu, artikulua hori Ekonomia Hitzarmenaren 33.6 artikulua A letraren 4. zenbakiaren baliokidea baita.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

## ERABAKI DU

1.- Deklaratzea Bizkaiko Foru Aldundiak eskumena duela Bizkaian kokatutako gasolina-zerbitzuguneetan ordaintzeko bitarteko gisa “ERAKUNDE JAULKITZAILEAREN Txartela” erabiliz 1 ERAKUNDEAK (IFZ: -----) 2006tik 2011ra bitarteko ekitaldietan egindako erregai-emanaldiak zergapetzen dituen BEZaren ordainarazpena egiteko, eta, era berean, eskumena duela Bizkaian

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>18/2012, 27/2014 eta metatuak</i>	<i>R11/2017</i>	<i>2017-06-21</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea</i>

kokatutako gordailu fiskaletatik 1 ERAKUNDEAK egindako emanaldiak ordainarazteko; hori guztia Ekonomia Itunaren 28. artikulua ren Bat zenbakiaren A) letraren 1. zenbakian ezarritakoa aplikatuz.

2.- Jarduerak amaitzea eta artxibatzea.

3.- Hitzarmen hau Bizkaiko Foru Aldundiari, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari eta 1 ERAKUNDEARI jakinaraztea.